




BEÑAT GAZTELUMENDIK GIPUZKOAKO TXAPELA

Maiatzean abiatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta abenduaren 19an iritsi zen azken geltokira, Illunbeko finalera. Hirugarren finala Illunbeko plazarentzat eta hirugarren finala Beñat Gaztelumendi añorgatarrarentzat. Eta, hirugarrenean, bai, txapela etxeratu zuen. Oholtzan zein oholtzatik behera hazi den bertsolaria da añorgatarra, eta ibili behar duen bidea gero eta argiago duena. Alaia Martinekin iritsi zen buruz burukora eta erremate gogoangarria eman zioten elkarlanean, belaunaldi berri baten erakusgarri. Jendetsua izan da Gipuzkoako Txapelketa eta Illunbeko finalean 7.200 bertsozale bildu ziren.

aurrean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

MIKEL URRUTIKOETXEAK BI TXAPEL

Mikel Urrutikoetxea zaratamarrarentzat urte biribila izan da. Bi txapela jantzi ditu: lau t'erdikoa eta buruz burukoa. Buruz burukoa Aimar Olaizolari irabazi zion, eta baziren 38 urte txapel hori ez zihoala Bizkaira. Lau t'erdikoa Irujoren parean jantzi zuen, eta Bizkaira eraman 62 urte eta gero.



Urrutikoetxea, pozik, lau t'erdiko txapelketa irabazi berritan. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

INDARKERIA MATXISTAK BESTE SEI EMAKUMEREN HERIOTZA ERAGIN DU



Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

Zoritxarrez, urteari errepasso egiten dion GAUR8 honetan beste behin indarkeria matxistaren biktimei tartetxoa eskaini beharrean gaude. Aurtengoan, Euskal Herrian sei emakumek galdu dute bizia eta makina bat izan dira indarkeria sexista euren azalean sufritu dutenak. Uda sasoian jaiz jantzitako kaleak bilakatu ziren indarkeria molde honen testigu, bai eta gero eta oihartzun handiagoa duten protesta ekitaldien agertoki ere. Gertatu zitekeenari aurre hartu nahian jai batzorde edota eragile hainbatek jai eremuan emakumeen aurkako indarkeria eragozteko protokoloak onartu zituzten jaien atarian. Onartu eta abian jarri. Ez zen nahikoa izan eraso hainbat saihesteko, baina bai herritarren kontzientzian eragin eta salaketa kalera eramateko. Ondoko irudian, Iruñeko Udaletxe plaza jendez gainezka ageri da. Jendetza ez dago txupina noiz botako; hark abiatutako jaiak eten eta eraso bat ozen salatzekeo baizik.